



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, ARABAKO ERIZAINEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUEI BURUZ

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Aurkibidea:

TOCLehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 17ko bileran, adierazitako kideek osatuak, Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren estatutuei buruzko txosten hau eman du.

I. AURREKARIAK

1. 2013ko ekainaren 3an, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroekiko eta Tokiko Administrazioekiko Harremanetarako Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

3. Gure antolamendu juridikoak profesionalen elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: «Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.»



Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean¹. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudiaren aldaketa berriak direla eta². Bai Estatuan, bai EAEn, profesionalen elkargoen araudia Zuzentarau honen aurreko erregulazio batean dago oinarrituta; hain zuzen ere, bi lege hauetan: 1974ko Profesionalen Elkargoei buruzko Estatuko Legean eta 18/1997 Legean, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoan³. Dena den, une honetan Zuzentarauaren Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko hainbat transposizio-arau daude eta horiek aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta, beraz, baita profesionalen elkargoen funtzionamendu-araubidean ere, Paraguas (17/2009) eta Omnibus (25/2009) Legeak edo EAeko 7/2012 Legea, batik bat⁴.

18/1997 Legearen «xede da tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarritzko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da.» Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikuluko horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Hori dela eta, Arabako Erizainen Elkargo Ofiziala 18/1997 Legean ezarritakoaren arabera zuzendu behar da, erkidegoaren araudira egokitzeko 2012an egindako aldaketan ondoren indarrean dagoen testuaren arabera. 18/1997 Legearen 9. Xedapen Gehigarriak hau dio: «Elkargo profesionalen errejimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak bere osoan edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian birmoldatzen diren unean.»

4. Elkargoei araudiari men egitea ez da estatutuen eta Elkargoen beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez hitzezko testuak

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia defendatzekoa.

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

³ Profesionalen elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionalari buruzkoa. Lanbide Tituludunen, eta Elkargo eta Kontseilu Profesionalen Jarduna arautzen duen azaroaren 21eko 18/1997 euskal Legea.

⁴ Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Paraguas Legea); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena (Omnibus Legea); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.



araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehia babesteko legedia urra bailezakete⁵.

5. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarriko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu estatutuetako zer agindutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Halaber, adierazi behar da Lehiaren Euskal Agintaritzak bi gomendio-mota egingo dituela txosten honetan: araudiaren balizko urraketek buruzkoak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio-motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINKO HAUSNARKETAK

A. Elkargora nahitaez bildu beharra.

6. Auzitegi Konstituzionalak elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duen Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua interpretatu eta honako hau finkatu du: «elkargora nahitaez bildu beharra interes publiko bati erantzuteko beharra dagoenean bakarrik izango da konstituzionalki legezkoa»⁶. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak legegilea gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, profesionalen elkargoetan elkartzeko askatasunak eta lanbide-aukeraketa mugatu ditza —batik bat elkargoko kide egin beharra finkatuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean⁷.

Paraguas Legeak, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arrazoiak direla-eta, hala justifikatuta dagoenean. (12. artikulua)

⁵ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.

⁶ Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 11ko 89/1989 Epaia. Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia kontsultatu daiteke, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituenak. Era berean, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazioari Idazkariaren, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienez elkargora nahitaez bildu beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, lanbidearen antolaketarekin lotuta konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak garatzen ez dituztelako, hain zuzen.

⁷ Ikus, gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. *As. Le Compte, Van Leuven y De Meyere c. Bélgica*, edo 1993ko ekainaren 30eko epaia, *Sigurdur A. Sigurjónsson c. Islandía*, A seriea, 264. zenbakia; bertan, neurritz kanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati taxi-gidarien erakunde batera atxikitzeke legezko betebeharra.



- Eskakizuna diskriminatzailea ez denean (hau da, zuzenean nahiz zeharka, hura diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera). (5. artikulua)
- Beharrezkoa denean (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean). (5. artikulua)
- Haren helburua lortzeko egokia denean (hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargoko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbide-tuko duen neurri hobeagorik ez dagoenean). (5. artikulua)
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoitzen denean. (5. artikulua)

Euskal Autonomia Erkidegoan, eta azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30.1 artikuluari jarraiki, profesionalen elkargo batean txertatu beharra eskatu ahal izango da jarduera jakin batean jarduteko. Xedapen horren arabera, «Lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, dagokion Legean horrela jasotzen duenean⁸. Horrenbestez, elkargora nahitaez bildu beharra lege mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzat.

Gainera, elkargoko kide egin beharra lege mailako arauen batean jaso beharko da hark Lehia defendatzeko Legearen 4. artikulua-ren babesa izan dezan⁹.

Oro har, *Omnibus* Legeak sarbidearen eta jardun profesionalaren mugak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargoko kide egin beharraren aldaketa¹⁰. Une honetan, eta profesionalen elkargoei buruzko Legearen 3.2 artikulua-ren arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean bakarrik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak legez arautzen ez diren bitartean, eta *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorriari jarraiki, hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu dira. Horregatik, elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren, eta, beraz, maila egokia ez izan arren.

⁸ 2013ko urtarrilaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko 37. zenbakiko BOE), Andaluziako profesionalen elkargoei buruzkoa; haren arabera, Estatuaren berariazko eskumena da elkargoan derrigorrez kide egin behar izatea edo salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira Auzitegi Konstituzionalaren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionez) eta Auzitegi Konstituzionalaren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionez).

⁹ Aipatutako 4. artikulua horretako "Legeak salbuetsitako jokaerak" epigrafeak honako hau dio: "Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei." Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: "Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira".

¹⁰ Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorra: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargoko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzaileak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoak edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan, adibidez».



7. Osasun Lanbideen Antolamenduari buruzko 2003ko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak elkargora nahitaez bildu beharri tazituki eutsi zion osasun-lanbideei dagokienez. Izan ere, 2.4. artikuluan hau adierazten du: «Osasun-lanbide batean nor bere kontura edo beste baten kontura aritzeko, beharrezkoa izango da dagokion titulu ofiziala izatea, lanbide horretan aritzeko espresuki gaitzen duena. Bestela, 2.4. artikuluan aurreikusitako ziurtagiria beharko da, eta dagokionean, hari egin beharko zaio jaramon, aplika daitezkeen gainerako legeetan eta profesionalen elkargoak erregulatzen dituzten arauetan.»¹¹.

Aldez aurretik, 1231/01 Errege Dekretuak, azaroaren 8koak, Espainiako Erizainen Elkargoaren, Kontseilu Nagusiaren eta Lanbidearen Antolamenduaren estatutu orokorrak onartzen dituenak, hau ezarri zuen: «Dagokion lurraldeko Erizainen Elkargo Ofizialean izena emanda dagoena soilik egongo da gaituta erizaintzaren lanbideko egintzak egiteko, zerbitzu profesionalen edozein modalitate edo forma juridiko publiko edo pribatutan (...)»¹².

8. Estatutuetan, honako xedapen hauetan lantzen da elkargora nahitaez bildu beharra:

9. artikulua. Elkargoan sartzea.

Elkargoan sartzea nahitaezko eta bete beharreko baldintza izango da Erizaintzako Diplomatura edo Osasun Laguntzaile Teknikoaren titulua izan eta legearen arabera ezarritako edozein erregimenetan lanbidean jardun nahi duenarentzat, laneko helbide bakar edo nagusia Elkargoaren lurralde-eremuaren barruan badago.

18. artikulua. Lanbide Sozietateen erregimena.

Erizaintzaren lanbideko jarduerak egitea helburu duten lanbide-sozietateak Elkargoan sartuko dira nahi eta nahi ez, lanbide hori soilik zein beste lanbide batzuekin batera egiten bada. Estatutu hauen 9. artikuluan adierazten da nola sartuko diren Elkargoan, betiere, sozietate-egoitza eta erizain-lanbidearen egintzen jarduera nagusia edo bakarra Elkargoari dagokion lurraldean kokatuta badaude. Kideek ere elkargoko kide egin beharko dute.

9. Horri dagokionez, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinarazi nahi du txosten hau ematean Arabako erizainek elkargoko kide egin behar izatea legala dela, baina, zalantzarik gabe, betebeharrak horrek lehia mugatzen duela, lanbidean askatasunez aritzea eragozten duela, eta Espainiako Konstituzioaren 35.1. artikuluan onartutako lan-eskubidea oztopatzen duela. Murrizketa horiek oinarri bakarra izan dezakete: interes publikoa eta ondasun juridikoak babesteko arrazoi sendoak, baldin eta elkargoko kide egin behar duen lanbidean askatasunez aritzea baino sendoagoak dira. Osasun publikoa da babestu beharreko elementu horietako bat.

B. Elkargoko kide egiteko titulazioa

10. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialak mugak jartzen ditu Elkargoan sartzeko; hain zuzen, Erizaintzako Gradua, Erizaintzako Diplomatura eta Osasun Laguntzaile Teknikoaren titulua dutenak baino ezin dira elkargoko kide izan. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, 9. artikulua arautzen du gaia.

¹¹ BOE, 280. zk., azaroaren 22koa.

¹² BOE, 269. zk., azaroaren 9koa.

**9. artikulua. Elkargoan sartzea.**

Elkargoan sartzea nahitaezko eta bete beharreko baldintza izango da Erizaintzako Diplomatura edo Osasun Laguntzaile Teknikoaren titulua izan eta legearen arabera ezarritako edozein erregimenetan lanbidean jardun nahi duenarentzat, laneko helbide bakar edo nagusia Elkargoaren lurralde-eremuaren barruan badago.

11. Esan behar da Bolognako Prozesuaren ondorioz titulazioen katalogoa desagertu zela; izan ere, unibertsitate-titulu berriak sortzera animatu zituen unibertsitateak, eta horretarako aukera eman zien. Horrenbestez, gaur egun, ez dago behin betiko titulazio-kopururik. Unibertsitateek titulazio berriak proposa ditzakete. Ministro Kontseiluak titulazio berriak onartu eta haien izaera ofiziala ezarri ondoren, Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan jasotzen dira.

Horri dagokionez, Lehiaren Euskal Kontseilu hau bat dator Zerbitzuen Zuzentzarua aldatu eta gero Lehiaren Batzorde Nazionalak profesionalen elkargoei buruz egindako txostenarekin. Zuzentzari haren arabera, lanbide-jarduera batean aritzeko prestakuntza-baldintza jakin batzuk eskatzeak lehia mugatzen du, eta hori justifikatuta egon daiteke interes orokorra dela eta. Hala ere, korporazio-bide horrek arrisku bat dakar berekin: lanbidean aritzeko nahikoa gaituta dauden tituludun profesionalen jardueran aritzea eragozte.

Beraz, Estatutuen 9. artikuluan hauek ere sartzea gomendatzen da: Erizaintzako Graduaren, Erizaintzako Diplomaturaren eta Osasun Laguntzaile Teknikoaren titulua dutenekin batera, beste titulazio ofizial batzuk dituzten pertsonak, betiere, lanbidean aritzeko nahikoa gaitasun teknikoa badute.

C. Elkargoak bakarrik ordezkatzeko lanbidea erakunde-arloan.

12. Zera xedatzen du azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 22. artikulua: «Elkargoak (...) bere helburua izango du nahitaez elkargora bildu beharra eskatzen duen dena delako lanbidea erakunde modura ordezkatzeko duen bakarra izatea; kideen interes profesionalak defendatzea eta kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesak defendatzea; eta hori guztia gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat eginda». 6.5. artikulua, berriz, zera dio: «Edonola ere, lanbide bat bera bakar-bakarrik egitera behartzen duten baldintzak [...] soil-soilik Legeak ezartzen dituen horietan izan daitezke».

Profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 3.3. artikulua, ordea, zera xedatzen du: «Profesionalen elkargoen funtsezko eginkizun bat da lanbidea erakunde-arloan ordezkatzeko duten bakarrak izatea, dena delako lanbideak elkargora nahitaez bildu beharra eskatzen duenean bakarrik».

13. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, artikulua hauek arautzen dute gai hori:

5. artikulua. Helburuak

Arabako Erizainen Elkargo Ofizialak helburu hauek ditu:

(...)

b) Erizaintzaren lanbidea ordezkatzeko eta defendatzea, bai eta elkargoko kideen interes profesionalak ere, gizartearen interes eta behar orokorren arabera.

**6. artikulua. Eginkizunak**

Elkargoak eginkizun hauek izango ditu:

(...)

f) Bere esparruan lanbidea ordezkatzeari eta defendatzeari Administrazioaren, Erakundearen, Auzitegiaren, Entitatearen eta partikularren aurrean, alderdi izateko legitimazioarekin, profesionalen interesetan eragina duten auzi guztietan. Eta eskariak egiteko eskubidea erabiltzea, Legearen arabera.

14. «Elkargo profesionala dena delako lanbidea erakunde-arloan ordezkatzeko duen bakarra» izateari buruzko artikulua ez ditu lotzen Elkargoa ordezkari bakarra izatea eta Elkargoa nahitaez kide egin behar denetakoa izatea. Hala ere, lanbide batean bakarrik aritzeaz ere badihardu arauak, eta xedatzen du lege-mailako arau batek ezarri behar duela eskakizuna. Bi aginduak batera interpretatu behar dira, oinarrizko legediarekin eta Espainiako Konstituzioko 139. artikuluekin bat.

15. Dena den, transkribatutako artikuluek ez dute ordezkartzaren eskusibotasuna aipatzen; hortaz, Lanbide Zerbitzuei buruzko Lege berriak lanbidean aritzeko elkargoko kide izatea beharrezkoa ez dela erabakiko balu, Arabako Erizainen Elkargo Ofizialak ez lituzke Estatutuak aldatu behar.

D. Oniritzia

16. Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 24. artikulua arautzen ditu elkargoen berezko eginkizunak, eta i) paragrafoan, eginkizun hau ezartzen du: «Lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onestea, bezeroek (herri-administrazioak barne) halaxe eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean. Ikus-onespenaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz. Hala ere, ez ditu inola ere agertuko ez ordainsariak ez eta kontratuaren baldintzak ere; bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko dira. Ez du jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboaren kontrol teknikoak. Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, ikus-onespenaren kosteak modu onekoa izan behar du, ez gehiegizkoa eta diskriminatzailea ere. Elkargoek publizitatea egin behar diote ikus-onespenaren kostuari; publizitatea telematikaren bidez ere egin daiteke»¹³.

Abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuak, elkargoen nahitaezko oniritziari buruzkoak, ez du aipatzen biologo batek egin dezakeen eta oniritzia nahitaez behar duen lanik.

17. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, 60. artikulua arautzen du gaia.

60. artikulua. Finantzazioa

¹³ Ildo berean, profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko legeko 13.1. artikulua.



(...)

Elkargoaren diru-sarrerak izango dira, halaber, Elkargoaren jardunetik sortzen direnak eta Batzar Nagusiak egiaztagiri, irizpen, oniritzi eta antzekoengatik ezarritako tasak. Elkargoaren diru-sarrerak izango dira, baita ere, onartzen diren dohaintza, legatu edo diru-laguntzak, eta edozein titulu dela medio jaso daitezkeenak —titulua finantzarioa edo sozietate edo enpresa publiko nahiz pribatuetan duen partaidetzarena ere izan daiteke—.

18. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren 60. artikulua ez du oniritziaren borondatezkotasuna aipatzen. Beharrezkoa da artikulua hori bestela idaztea. Idazkera berriak zehaztu behar du bezeroek euren borondatez eta berariaz eskatzen dutenean bakarrik eman diezaiekeela Elkargoak oniritzia lan profesionaleri.

E. Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea

19. Lehia bidegabeari buruzko 3/1991 Legeak, urtarrilaren 10ekoak oso debeku zehatzak ezartzen ditu. Besteak beste, nabarmentzekoa da 4. artikuluko klausula orokorra, zera xedatzen baitu: “Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan, fede onaren eskakizunen kontraketatik ulertuko da ardura profesionalaren kontrakoa den enpresaburu edo profesional baten portaera, hau da, ardura profesional hori ulertuko da merkatuko jardunbide prestuen arabera enpresaburu batengandik itxaron daitezkeen gaitasun maila eta arreta bereziak, baldin eta portaera horrek kontsumitzaile arruntaren edo jardunbidearen hartzaila den taldeko kide arrunt baten portaera ekonomikoa modu esanguratsu batean asaldatzen badu edo asalda badezake, kontsumitzaile-talde konkretu bati zuzenduriko jardunbide komertziala bada”. Klausula orokor horrekin bat, arauaren 5.-31. artikuluek arautzen dituzten jardunbideak bakarrik har daitezke desleialtzat.

Publizitateari dagokionez, berriz, azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorrak, publizitateari buruzkoak, legez kontrakoak jotzen dituenak bakarrik har daitezke desleialtzat.

20. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, artikulua hauek arautzen dute gai hori:

6. artikulua. Eginkizunak

Elkargoak eginkizun hauek izango ditu:

(...)

Bidegabeko lehia eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.

17. artikulua. Debekuak

Orokorrean, berariaz debekatzen zaie elkargokideei indarreko legeriaren eta Erizaintzako arau etiko, deontologiko eta juridikoen aurkakoak diren ekintza profesionalak —bere Kodean eta aplikatu daitezkeen gainerako lege-arauetan datozenak— gauzatzea. Zehatzago esanda, elkargokide orori debekatzen zaio honako hauek egitea:

(...)

n) Bidegabeko lehiari aritzea.

**52. artikulua. Arau-hauste profesionalak**

(...)

2. Arau-hauste larritzat joko dira honako hauek:

(...)

Bidegabeko lehia dakarten ekintzak.

21. Arau horiei dagokienez, kontuan izan beharra dago “lehia bidegabea” termino orokorra erabiltzeak lehia murriztea ekar dezakeela, haren hedadura nabarmen handiagoa baita oro har Legeak xedatzen duena baino.

Zentzu horretan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostenak lehia bidegabeari buruz jasotzen duena gogoratu behar da: “lehia bidegabearen kasuak definitzea Legeari baino ez dagokio, baita epaileak epaitzea ere. Horregatik, elkargoek epailearengana jo behar dute lehia bidegabearen kasuetan, eta araubide zigortzaileetan, lehia bidegabeak eragindako arau-haustek epaile batek hala zigortzen duen kasuetan aplikatuko dira”¹⁴.

Kontuan izanik aldaketak izan direla gaiari buruzko araudian eta kontuan izanik Elkargoko kideek ez dutela zertan jakin haien berri, komeni da Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren estatutuek berriaz aipatzea lehia bidegabeari buruzko legeko zer arau hauts daitezkeen (oso gutxi dira); arau horiei dagokienez, Elkargoak lege-akzioak egin ditzake autoritate judizialen aurrean.

Hori dela eta, Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren estatutuetan, Elkargoak akzioak hartzeko aukera-eza batu behar da, praktikak abian jarri aurretik.

Aurreko guztia kontuan hartuta, arau horretan berriaz jaso behar da Elkargoaren eginkizuna, hots, identifikatzen diren praktika bidegabeak eskumena duten agintariei jakinaraztea eta, lehia bidegabea aitortzen duen ebazpen judizialik egonez gero, diziplina-neurriak hartzea.

Alde horretatik, kontu handiz ibili behar da, gutxieneko ordutegiak, ordutegien koordinazioa eta ordutegia finkatzeko askatasunaren kontrako murrizketak ez ezartzeko eta profesionalen komunikazio komertziala ez mugatzeko, baita horrelako jardunbideei bide ez emateko ere.

Bereziki zaindu behar da agindu honen garapena eta erabilera. Izan ere, esan bezala, uztailaren 3ko 15/2007 Legeari men egitea ez da Elkargoaren estatutuen hitzez hitzeko testuak Legeari men egitea bakarrik, aitzitik, Elkargoaren egintza eta erabaki guztiek araudiari men egitea ere bada.

F. Elkargoa elkargokideen lehia bidegabe gisa

22. Urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeak, lehia bidegabeari buruzkoak, xedatzen duenez, «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daiteke.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 24 artikulua, bere aldetik, zera xedatu du: «Honako hauek dira elkargoaren funtzioak:

¹⁴ Ikus Lehiaren Batzorde Nazionala, arestian aipatutako txostenaren 75. or.



- a) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesei zor zaien errespetua zaintzea.
- b) Lanbidearen jarduna antolatzea, dagokion eremuan eta ezarritako lege-esparruaren barruan.
- c) Lanbidearen jarduna legezkoa eta egokia izatea eta elkargokideek euren eginbeharrak betetzea zaintzea.
- d) Diziplina-ahalmenaz baliatzea 19. artikuluan aurreikusitako moduan.
- e) Lanbideko ordainsari-baremoak ezartzea –orientagarriak izango dira–.
- f) Elkargokideek eskatuta, eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehaztu bezala, laneko ordainsari eta zerbitzu-sarien kobrantzaz arduratzea. Laneko ordainsariei buruzko alderdiak eztabaidatzen diren prozesu judizialean eta administrazio-prozeduretan txostena egitea.
- g) Elkargokide guztientzako zerbitzuak eskaintzea, eta batez ere, etengabeko prestakuntza sustatzea eta prestakuntza hori izateko obligazioa benetan gauzatzeaz arduratzea..
- h) Arbitraje bidez edo artekaritza eginez, elkargokideen artean sortzen diren lanbide-gatazketan parte hartzea, baita elkargokideek hirugarrenekin dituzten gatazketan ere, baldin eta parteek adostasunez hala eskatzen badute.
 - i) Elkargokideek egiten dituzten lan profesionalak ikus-onestea, elkargoaren estatutuek edo dagokion legeriak hala ezartzen badute. Ikus-onespenak honako hauek egiaztatu beharko ditu: lanaren egilea nor den, egilearen titulazioa, gaitasuna eta habilitazioa, eta lanaren eduki formala. Ikus-onespen horretan ez dira sartuko ordainsariak eta kontratuko gainerako baldintzak; horiek zehaztea parteen esku utziko da.
- j) Herri Administrazioarekin lankidetzan jardutea interes komunak lortzeko. Eta bereziki, profesionalen elkargoek:
 - Administrazio-organoetan parte hartzea, organo horien arauak hala aurreikusten dutenean; arau horietan ezarritako moduan jokatu beharko dute.
 - Eskumena duten organo eta enteei eskatzen dizkieten edo bere ekimenez lantzen dituen txostenak ematea.
 - Eskatzen zaizkion estatistikak egitea.
- k) Bidegabeko lehia eta intrusismoa ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzen bitartez.
- l) Aurrekontua onartu eta elkargokideek egin beharreko ekarpenak arautzea.
- m) Gai espezifikoei buruzkoak jakitea eskatzen den epaimahaietarako ordezkariak izendatzea —hala eskatzen bazaie—.
- n) Lanbidearen interesentzat onuragarriak diren eta elkargoaren helburuak betetzera bideratuta dauden gainerako funtzioak.
- ñ) Indarrean dagoen legeriak ematen dizkion gainerako funtzioak.»



Azkenik, 18/1997 Legearen 5. artikulua elkargoko kide izateko baldintza hauek ezartzen ditu: "1. Tituludun lanbide batean jardun ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztenek:

- a) Dagokion titulua edukitzea, lege honetako 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.
- b) Lanerako gaitasunik gabe ez izatea.
- c) Legeetan zehaztutako bateraezintasun edo debekuen pean ez izatea.
- d) Beharrezkoa denean, elkargo-arauak betetzea.

2. Bestelako baldintzarik jarri nahi bada, lege onartu beharko da derrigorrez.

23. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, 60. artikulua arautzen du gaia.

60. artikulua. Finantzazioa

(...)

Elkargoaren diru-sarrerak izango dira, halaber, Elkargoaren jardunetik sortzen direnak eta Batzar Nagusiak egiaztagiri, irizpen, oniritzi eta antzekoengatik ezarritako tasak. Elkargoaren diru-sarrerak izango dira, baita ere, onartzen diren dohaintza, legatu edo diru-laguntzak, eta edozein titulu dela medio jaso daitezkeenak –titulua finantzarioa edo sozietate edo enpresa publiko nahiz pribatuetan duen partaidetzarena ere izan daiteke–

24. Artikulu horretan, Elkargoaren diru-sarrerak Elkargoaren jardunetik sortutakoak izango direla ezartzen da, baina ez da zehazten jardun hori zertan den; besteak beste, egiaztagiri, irizpen, oniritzi eta antzekoengatik ezarritako tasak ere aipatzen dira. Artikuluan ez da jasotzen Elkargoak gauzatutako jarduera horren izaera, ezta tasa bat kobratuta emango diren oniritzien jarduera ere; nolana ere, horiek izaera profesionaleko lanak badira, elkargokideei dagozkien lan gisa hartu beharko dira, elkargoak ez baitu horiek garatu ahal izateko titulurik. Bestela, Elkargoa bere elkargokideekin arituko litzateke lehian. Alde horretatik, bi ondorio izan ditzake Elkargoak erizainen berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat litzateke. Zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea izan liteke, eta profesionalek merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin.
- Elkargoak lehenetasuna izango luke elkargoko kideen aurrean, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, zerbitzu jakin batzuk barnean banatuko lirateke, Elkargoak negozioa «beretzat hartuz».

Horrenbestez, eta aipatutako tartekia ezabatzea erabakitzen ez bada, honako hau txertatzea proposatzen da: «Diru-sarrera horiek ez dira, inola ere, Elkargoak eskainitako erizainaren lanbideari dagozkion zerbitzuetatik etorriko».

G. Publizitatea

25. Ómnibus legeak 1974ko Profesionalen elkargoei buruzko Legea aldatu du. Izan ere, elkargoko profesionalen merkataritza-mezuetan legeak aurreikusi gabeko murrizketak ezartzeko ahalmena kendu du; horrenbestez, Elkargoek beren arauetan publizitate-kontuetan ezar ditzaketen xedapenak –esate baterako, lanbidearen



independentzia eta osotasuna babestekoak— legeekin bat datozen elkargokideei soilik eska dakizkie. Beraz, 2.5. artikuluko bigarren paragrafoak zera adierazten du: «Elkargoen estatutuetan edo Elkargoek onartzen dituzten kode deontologikoetan, berariazko aurreikuspenak jaso daitezke, elkargokideei eskatzeko komunikazio-kontuetan legearekin bat datorren jokabidea izan dezaten. Horren xedea lanbidearen independentzia eta osotasuna babestea da, baina baita, erizainen kasuan, lanbide-sekretuarena ere».

26. Horrenbestez, Elkargoen arauak edo kode deontologikoak ezin dituzte muga handiagoak ezarri Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorrak, azaroaren 11koak, baino¹⁵. Gainera, kontuan izan behar da lege horren 5.1. artikulua hau ezartzen du: «»Honako gai hauei buruzko publizitatea berei buruzko arau bereziek arautuko dute edo aurretiazko administrazio-baimenaren araubidearen mende jarri ahal izango da: material edo produktu sanitarioak eta erregelamendu tekniko-sanitarioen mende daudenak; pertsonen osasunarentzat, segurtasunarentzat edo ondarearentzat arriskugarriak izan daitezkeen produktu, ondasun, jarduera eta zerbitzuak; zozketa-, desafio- edo zori-jokoak. Araubide hori ezarri ahal izango da, orobat, Konstituzioan aitorturiko balio eta eskubideen babesak hala eskatzen duenean»¹⁶.

27. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, artikulua hauek arautzen dute gai hori:

16. artikulua.- Elkargokideen betebeharrak

Elkargokideek betebeharrak hauek dituzte:

(...)

5. Lan-jardunarekin lotutako publizitate-ekintza oro legeetan ezarritakoarekin, osasun-babesarekin eta lanbidearen printzipio etiko eta deontologikoekiko izan behar den errespetuarekin bat etortzea.

17. artikulua. Debekuak

Orokorrean, berariaz debekatzen zaie elkargokideei indarreko legeriaren eta Erizaintzako arau etiko, deontologiko eta juridikoen aurkakoak diren ekintza profesionalak —bere Kodean eta aplikatu daitezkeen gainerako lege-arauetan datozenak— gauzatzea. Zehatzago esanda, elkargokide orori debekatzen zaio honako hauek egitea:

(...)

l) Indarrean dagoen legeria, Estatu hauetan ezarritako arauak eta Kode Deontologikoa urratzen duten zerbitzuak ematen direla publizitatearen bidez iragartzea edo zabaltzea.

28. Elkargoek ezin dituzte muga handiagoak ezarri 34/1988 Legeak aurreikusitakoak baino, eta beraz, komeni da 16.5. eta 17.l) artikulua aldatzea, Estatutuetan jasotako debekuak Legeak berariaz ezarritakoarekin bat etor daitezzen.

¹⁵ BOE, 274. zk., azaroaren 15ekoa.

¹⁶ Horrela dago idatzita 29/2009 Legean, azaroaren 30ekoan. Lege horrek lehia bidegabearen eta publizitatearen lege-erregimena aldatu zuen, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak hobeto babesteko.



H. Adituen zerrendak

29. Profesionalen elkargoei buruzko 2/1974 Legearen 5.h) artikuluan, honako hau arautzen da Elkargoen berezko eginkizun gisa: «Gai judizialean aditu gisa esku hartzeko eskaera egin dakiekeen elkargokideen zerrenda auzitegiei ematea edo bere aldetik izendatzea, dagokion moduan eta betiere legeei jarraiki».

30. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, artikulua honek arautzen du gai hori:

6. artikulua. Eginkizunak

Elkargoak eginkizun hauek izango ditu:

(...)

g) Gai judizialean aditu gisa esku hartzeko eskaera egin dakiekeen elkargokideen zerrenda auzitegiei ematea edo bere aldetik izendatzea, dagokion moduan eta betiere legeei jarraiki.

31. Lehiaren ikuspuntutik, ez da hutsegiterik hauteman paragrafo horretan. Hala ere, kontuan hartu behar da kasu bakoitzean zerrenda horiek egiteko erabili behar den metodoak funtzio horiek egitea eragotz dezakeela. Beraz, Elkargoak kontu handiz jokatu behar du zerrendak egitean edo aditu bat izendatzean; hau da, betekizun gardenak eta ez-diskriminatzaileak erabili behar ditu, nahi duten profesional guztiak sartzeko. Hona hemen lehiaren kontrako jokabideen zenbait adibide: zerrendaz arduratzen den elkargora nahitaez bildu beharra, beste zerrenda batzuetan egotea bateraezina izatea, eta prestakuntza-ikastaroak edo aurretiko lanbide-esperientzia luzea eskatzea¹⁷.

I. Elkargoaren baliabide ekonomikoak

32. Zera dio Lehiaren Espainiako Batzordeak profesionalen elkargoei buruz egindako txostenak: «Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten zenbatekoak handiak badira, ezin berreskuratuzko kostutzat har daitezke, Elkargoko kide izatea merkatuan lehiatzeko abantaila esanguratsua denean batez ere. Merkatuan sartzeko oztopo bat da kuoten zenbatekoa handia izatea, eta lehiakide berriek merkatuan sartzeko gogoia galtzea, merkatuan berandu sartzea edo merkatuan ezin sartzea ekar dezake. Horren ondorioz, benetako lehia murriztagoa da eta, gainera, baliteke erabiltzaile eta kontsumitzaileek ordaindu behar izatea Elkargoko kideek Elkargoan izena emateko edo Elkargoko kide egiteko kuoten kostuak»¹⁸.

33. Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetan, 60. artikulua arautzen du gaia.

60. artikulua. Finantzazioa

Elkargoaren fondoak izango dira elkargoan sartzeko edo elkargokoa izaten jarraitzeko egin behar diren ohiko eta ezohiko ekarpenak; Batzar Nagusiak ezarriko ditu urtero

¹⁷ Horren adibide bat: Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluaren 2009ko otsailaren 9ko Ebazpena, 637/08 espedientean, Valentziako Erkidegoko aditu/arkitektoei dagokiena.

¹⁸ Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 57. or.



elkargokide bakoitzak egin behar dituen ekarpenak; ekarpen horiek derrigorrezkoak izango dira.

34. Kontuan izanik Elkargoko kuotek proportzionalak izan behar dutela eta ezin dutela diskriminatu, Elkargoak Elkargoko kideei ematen dizkien zerbitzuen arabera kalkulatu beharko lirateke, eta ez elkargokideen lanaren ordainsarien arabera edo elkargokideak Elkargoan daramatzaten urteen arabera.

IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

Bigarrena.- Elkargora nahitaez bildu beharrak lehiarekin zerikusia duten gaiak planteatzen ditu, eta ez merkatura sartzeari dagokionez bakarrik, baita lanbidearen jardunari dagokionez ere, eta horrek interes publikoa eta kontsumitzaileak kaltetu ditzake. Hori dela-eta, muga hori justifikatzen duten eta interes publiko kaltetuak daudela egiaztatzen denean bakarrik onartu ahal izango da hura derrigor ezartzea (lege bidez bakarrik).

Hirugarrena.- Edonola ere, Elkargoek lanbideetako jardunean egiten duten antolamenduak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

Laugarrena.- Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Arabako Erizainen Elkargo Ofizialaren Estatutuetoako artikulua hauek aldatu beharra adierazten du: 6.l) (Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea); 9 (Elkargoko kide egiteko titulazioa); 16.5 (Publizitatea); 17.l) (Publizitatea); 17.n) (Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea); 52.2.f) (Elkargoko kideak elkarren kontrako lehia bidegabean aritzea); y 60 (Oniritzia; Elkargoa elkargokideen lehia bidegabe gisa; Baliabide ekonomikoak).

Bilbo, 2013ko azaroaren 17a

PRESIDENTEA
MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO

KONTSEILUKIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KONTSEILUKIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA

